

Erref.: FMR / Legelari aholkularia

**GAIA: ONDARROAKO ITXAS ETXEKO OSTATU-ZERBITZUA BERRIRO IREKITZEA ETA SANTURTZIKO LAGUNTZA-ZENTROA MANTENTZEA COVID POSITIBODUN PERTSONENTZAKO UNITATE SOZIOSANITARIO GISA.**

Kontuan harturik zer xedatzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak, zeinaren bidez alarma-egoera deklaratzeko baita COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko, eta deskonfinatze-prozesua deritzon gauden honetan, bide ematen da Itsas Etxeetako ostatu-zerbitzuei berriro ekiteko.

Hori esanda, gogoratu behar da Erakunde honen Gobernu Bartzak apirilaren 17an erabaki zuela unitate soziosanitario bat gaitzea baldintza hauek betetzen dituzten pertsonentzat: COVID proban positibo ematea, ospitalean alta jasotzea, egoera kalteberan egotea eta etxera ezin itzultzea. Unitate horrek Itsastarren Etxea izeneko higiezina okupatu izan du, Santurtzin, bere izaera helburu horretarako aldarazita. Azaldutako asmo hori bat dator ondasunaren izaerarekin, zeina transferitu baitzen Gobernuaren apirilaren 27ko 80/1998 Dekretuaren bidez, zeinak EAEra eskualdatzen baititu IGIk laguntza eta gizarte-zerbitzuen arloan betetako eginkizunak eta zerbitzuak. Bai eta, gero, abenduaren 19ko 176/2000 Foru Dekretuaren bidez, zeinak onesten baitu Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko transferentzien batzorde mistoaren erabakia.

Horiek horrela, orduan erabilitako arrazoitze bera dakargu hona, Santurtziko higiezin horrek xede horri atxikita jarrai dezala sostengatzeko, nahiz eta egun desokupatuta dagoen, inguruabarrek hartaratuta, pandemiak indarra galtzearen ondorioz. Izan ere, laguntza-baliabide hori Osasun Saileko laguntza sarearen parte da, zeina osasun-arloko agintariekin itundu baita birusaren balizko berragerpenei aurre egiteko. Hori gorabehera, zentroa baliabide erabilgarria izango da aurrerakoan ere. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak osasun-larrialdia amaitzea dekretatu du, jarraibide harturik Lehendakariaren maiatzaren 17ko 10/2020 Dekretua, zeinaren bidez indarrak gabe uzten baita Euskadiko Herri Babeseko Plana zuzentzeko eskumenak goragoko batek bereganatzea; hortaz, bidezkoa da zentroa kudeatu eta mantentzeko itundutako zerbitzu-kontratuak azkentzea.

Horren harira, aski izan bedi aipatzea apirilaren 14ko 3/1986 Lege Organikoa, Osasun Publikoaren arloko Neurri Bereziei buruzkoa, zeinak osasun-arloko agintariei ahalmena ematen baitie egoki diren prebentzio-ekintzak eta neurriak abiaraz ditzaten eriak zein haiekin kontaktuan dauden edo egon direnak kontrolatzeko. Martxoaren 19ko SND/265/2020 Agindua, zeinaren bidez hartzen baitira adinekoen egoitzekin eta zentro soziosanitarioekin lotutako neurriak, COVID-19k eragin duen osasun-krisiaren ondorioz. Eta Osasun sailburuaren 2020ko martxoaren 27ko Agindua, zeinaren bidez ezagutarazten eta



interpretatzen baitira martxoaren 23ko SND/275/2020 Aginduan eta martxoaren 19ko SND/265/2020 Aginduan jasotako neurriak, Euskadiko Autonomia Erkidegoan egoitza-zerbitzuak ematen dituzten zentro guztietarako, izan titulartasun publikokoak zein pribatukoak, eta esku-hartze bideak hedatzen baitira aipatutako Aginduak garatzeko; hirugarren apartatuan, zehazki, baimen espresua ematen zaie Foru Aldundietan gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duten organoei aginduotan ezarritako neurriak aplikatu ditzaten.

Gobernu Batzaren erabaki harren bidez, ontzako eman zitzaion zentroaren jardura aldatzeari, eta azpimarratu zen Erakundeak ondo berma zezakeela, Ondarroako izen berekoaren bitartez, Santurtziko zentro horrek eman izan duen laguntza.

Bada, goian iragarritako deskonfinamenduaren testuinguruan, aipatzekoa da maiatzaren 16ko SND/414/2020 Agindua, zeinaren bidez malgutzen baitira alarma-egoera deklaratu ostean ezarritako murriztapen batzuk, normaltasun berrira iragateko planaren 2. fasea aplikaturik. Eta, oroz gain, Lehendakariaren maiatzaren 24ko 12/2020 Dekretua, zeinaren bidez Euskadiko Autonomia Erkidegoan ezartzen baitira iragate-prozesuaren 2. fasea aplikatzeko arauak, Espainiako Gobernuak ezarritakoak; 4. artikuluan, zehazki, xedatzen da jendearentzat berriro ireki ahal izango direla gizarte-zerbitzuak ematen diren zentro eta zerbitzuak, eta erakunde eskudunek zehaztuko dutela horien irekitze-araubidea, oinarri harturik bere azken xedapenetako bigarrenaren 5. puntuan ezartzen duena maiatzaren 16ko SND/414/2020 Aginduak.

Bestalde, eta esandakoaren gainean, GUFEn ostatuaren okupazio-estandar historikoek ahalbidetzen dute Ondarroan dagoen ostatuaren bitartez erantzutea eskariari, era egokian eta aski den adina.

Esandakoaren konklusio gisa, beharrezko ikusten da Ondarroako Itxas Etxeko ostatua berriro irekitzea. Horrekin, erantzuna emango zaio, aldi berean, Santurtziko haren izenkideari dagokion ostatatze-eskariari.

GUFEn gerente andreari dagokio gai honi kontu egiteko eskumena, jarraibide harturik 9. artikuluan xedatzen duena maiatzaren 30eko 4/2001 Forua Arauak, zeinaz aldatzen baitira Erakunde hori arautzen duten Estatutuak. Hona, beraz, azaldutakoaren bertutez hark ematen duen

## **EBAZPENA**

**Lehenengoa.**- Xedatzen da Ondarroako Itxas Etxea ekainaren 8tik aurrera irekitzea eta Santurtziko Itsastarren Etxea mantentzea COVID-19aren aurreko kontingentziazko laguntza-baliabide gisa.

**Bigarrena.**- Egun horretatik aurrera Bizkaiko Lurralde Historikoan egiten den zernahi ostatatze-eskabide, arauz, Ondarroako Itxas Etxera bideratuko da, eta ez beste inora.



**Hirugarrena.**- Santurtziko Itsastarren Etxea kudeatu eta mantentzeko itundutako zerbitzu-kontratuak hutsaltzea.

**Laugarrena.**- Ondarroako Itxas Etxeko langileak beren lanpostuetara berresleitzea; Santurtziko Itsastarren Etxeko langileek egungo behin-behineko postuetan jarraituko dute.

**Bosgarrena.**- Interesdunei Ebazpen hau jakinaraztea, bai eta aurretik doan txostena ere, zeinak balio baitu hura arrazoitzeko, eta adieraztea ezen, Lan Arloko Prozeduraren Legearen testu bateginean xedatutakoarekin bat, demanda aurkez dezaketela haren kontra, lan-arloko epaitegian, jakinarazpena jaso eta hurrengo bi hilabeteetan. Horrez gainera, egoki jotzen duten beste edozein ekintza erabili ahal izango dute.

Oinarri harturik 54. eta 89. artikuluetan ezartzen duena azaroaren 26ko 30/92 Legeak eta 54. eta 89. artikuluetan xedatzen duena HAAJ eta APE Legeak, aurretik doan txostenak balio du ebazpena arrazoitzeko eta, hala, ondorio guztietarako eransten zaio.

**Seigarrena.**- Pertsonak Zuzentzeko Departamentuak zerbitzuko agindua eman ahalko du langileak beren lanpostuetan has daitezzen.

**Zazpigarrena.**- Ebazpen hau sindikatuei jakinaraziko zaie, eta behar bezala argitaratuko da GUFEn iragarki-oholean, webgunean eta Intranetean.

Bilbo, 2020ko ekainaren 3a

GUFE-REN GERENTEA

Sin.: Nerea Urien Azpitarte

